

Liburu elektronikoen irakurgailuak eta tableta elektronikoen mailegua eskatzeko araudia

Legazpiko Udal Liburutegiak irakurtzeko eta informazioa eskuratzeko bide berriak eskeini nahian, **liburu elektronikoen irakurgailuak(eReader) eta tableta elektronikoen mailegu zerbitzua jartzen du erabiltzaileen/irakurleen eskura**. Gailu hauek hiru liburu elektronikoen(eReader) irakurgailu eta bi tableta elektroniko dira.

Erabiltzeko baldintzak

- 16 urte beteta duten erabiltzaile/irakurleek dute zerbitzu hau eskuratzeko aukera. Liburutegiko edo EIPSeko (Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea) edozein liburutegiko bazkide izan beharko da
- Maileguaren iraupena gehienez hilabetekoa izango da. Gailuaren mailegua eskualdaezina da.
- Erabiltzaileak/irakurleak liburutegiko mostradorean liburuzainari eskatu eta itzuli beharko dio gailua. Mailegualdian, erabiltzailearen gain dago gailuaren zaintza eta ardura.
- Gailua piztuta itzuli beharko da liburuzainaren aurrean egoera onean dagoela ziurtatzeko. Erabiltzaileak funtzionamenduan edozein anomalia antzematen badu, berehala adieraziko dio liburuzainari.
- Liburutegiak beharrezko ikusten dituen ekintzei heltzeko eskubidea hartzen du beregain araudi hau bete ezean.

Galtzeak edo hondatzeak

- Erabiltzaileak ezin du gailuaren programa-konfigurazioa ukitu edo aldatu. Eta apurtu edo galdu ez gero, marka eta ezaugarri berbereko beste gailu batekin ordezkatu beharko du.

Bete beharrekoak

- **Liburu elektronikoen irakurgailuak eta tableta elektronikokoak mailegatzeko araudia irakurri eta onartzen dut:**
- Izen-abizenak:
- NAN, IZF edo pasaporteak:
- Legazpi 20.....ko.....ren.....(a)n
- Sinadura.....